



# Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

## TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2016ICGO0008

**Eguna:** 2016-10-11

**Ordua:** 9:00 – 9:55

**Tokia:** Alkatetza

### Bertaratuak

- Zorione Etxezarraga Ortuondo.....EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... EHBildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz..... EHBildu
- Mikel Durán Gonzalo..... Euskadiko Sozialistak

### Bertaratu ez direnak

- Jesus M<sup>a</sup> Santos Anabitarte.....EAJ-PNV

### Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2016ko irailaren 8ko akta onartzea	1.	Aprobación del acta de 8 de septiembre de 2016.
HEA 2.6. “Pagoaga” eremuko hiri-antolamenduko Plan Berezia hasierako izaeraz onartzea.	2.	Aprobación inicial del Plan Especial de Ordenación Urbana de la AIU 2.6. Pagoaga.
Etxebizitzetan, garajeetan, lokaletan eta etxejabeen elkarteetan uholdeen aurkako babes neurrietan inbertitzeko languntzak emateko programa	3.	Programa de concesión de ayudas para invertir en medidas de protección contra las inundaciones en viviendas, garajes, locales y comunidades de copropietarios
Kale Garbiketa zerbitzuaren kontratua luzatzea.	4.	Prórroga del contrato del servicio de limpieza viaria.
Lorzaintza zerbitzuaren kontratua luzatzea.	5.	Prórroga del contrato del servicio de jardinería.
Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratuaren luzapena	6.	Prórroga del contrato del servicio de asistencia domiciliaria
“Marisa Garaño” babespeko etxebizitzetan etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratuaren luzapena	7.	Prórroga del contrato del servicio de asistencia domiciliaria de las viviendas tuteladas “Marisa Garaño”



# Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

“Marisa Garaño” babespeko etxebizitzetan katering zerbitzuaren kontratuaren luzapena	8.	Prórroga del contrato del servicio de catering de las viviendas tuteladas “Marisa Garaño”
Hirugarren munduko languntzen ebazpena.	9.	Resolución de las Ayudas al Tercer Mundo.
Txirriskla txistulari taldearen hitzarmena	10.	Convenio con Txirriskla txistulari taldea.
Informazio, galdera eta eskariak	11.	Información, ruegos y preguntas

## Esan-eginak eta erabakiak

### 1.- 2016ko irailaren 8ko akta onartzea.

Akta aho batez onartu da.

### 1.- Aprobación del acta de 8 de septiembre de 2016.

El acta se ha aprobado por unanimidad.

### 2.- HEA 2.6. “Pagoaga” eremuko hiri-antolamenduko Plan Berezia hasierako izaeraz onartzea.

Hirigintza, ingurugiro eta etxebizitza batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

**Lehenengoa.-** Hasierako izaeraz onartzea, HEA 2.6 “Pagoaga” eremuko Hiri-Antolamenduko Plan Berezia, udal arkitektoak eta ahokulari juridikoak bere txostenetan eskatzen dituzten aldaketak behin betiko izaeraz onartzeko dokumentuan sartu beharko dituztelarik.

**Bigarrena.-** 20 eguneko epean jendaurrean jartzea, GAO n eta prentsan iragarkiak jarri.

**Hirugarrena.-** Aldakonea Sociedad de Inversiones, S.L. enpresaren ordezkari, hartutako erabakiaren berri ematea.

Jarraian, **irizpena** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

### 2.- Aprobación inicial del Plan Especial de Ordenación Urbana de la AIU 2.6. Pagoaga.

Se presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de urbanismo, medio ambiente y vivienda:

**Primero.-** Aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación Urbana de la U.E.U. 2.6 “Pagoaga”, con las condiciones establecidas en el informe del arquitecto municipal y en el informe de la asesora jurídica municipal, que deberán de darse cumplimiento en el documento que se presente para la aprobación definitiva.

**Segundo.-** Someter el documento a exposición al público durante 20 días, publicándose el acuerdo en el B.O.G. y en el diario o diarios de mayor tirada en el territorio.

**Tercero.-** Notificar el presente acuerdo a los representantes de Aldakonea sociedad de Inversiones, S.L.

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad.**



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

### 3.- Etxebizitzetan, garajeetan, lokaletan eta etxejabeen elkarteetan uholdeen aurkako babes neurrietan inbertitzeko laguntzak emateko programa.

Zorione zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, atzerapenarekin bada ere, Uholdeen aurkako eta ibaiaren aldeko batzordeko irizpena batzordera ekarri dela. Jarraian irizpena aurkeztu du onartua izan dadin:

*Laguntzak emateko programa onartzea, eta deialdi publikoa egitea.*

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi, laguntzen deialdi-proposamena 2015eko urriaren 10ean egin zutela eta ia urtebetera onartuko dela. Bestalde, eskatu du laguntzaren berri bando baten bidez ematea, eta bando hori uholde eremuetan jartzea. Zorione zinegotziak erantzun dio bandoa jartzearena aproposa iruditzen zaiola eta horrela egingo dela.

Ordezko udal-idazkariak eskatu du hitza eta azaldu du urriaren 2an prozedura administratiboa arautzen duen lege berria indarrean sartu denez, deialdia lege berrira egokitu duela, baina egindako aldaketa bakarrak, lege eta artikuluko zehatz batzuen erreferentziak izan direla.

Jarraian irizpena bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

### 3.- Programa de concesión de ayudas para invertir en medidas de protección contra las inundaciones en viviendas, garajes, locales y comunidades de copropietarios.

Toma la palabra la concejala Zorione y señala, que aunque sea con atraso, se ha traído a la comisión el dictamen de la comisión contra las inundaciones y a favor del río. A continuación se ha presentado el siguiente dictamen para su aprobación:

*Aprobar el programa de ayudas y realización de convocatoria pública.*

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que la propuesta de las ayudas la presentaron el 10 de octubre de 2015 y que se va a aprobar casi al año. Por otro lado, solicita que se ponga un bando para dar a conocer la convocatoria de las ayudas y que el mismo se ponga en las zonas inundables. La concejala Zorione le contesta que le parece bien la propuesta y que se hará así.

Pide la palabra la Secretaria accidental y explica que al haber entrado en vigor, el 2 de octubre, la nueva ley de procedimiento administrativo, la convocatoria se ha adecuando a la nueva ley, si bien las modificaciones afectan únicamente a las referencias a la ley y su articulado.

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad.**

### 4.- Kale garbiketa zerbitzuaren kontratua luzatzea.

Obra eta zerbitzuak batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*Herriko kale garbiketa lanen zerbitzua emateko, Astigarragako Udalak Gureak Garbitasuna, S.L.U. enpresarekin sinatuta duen kontratua urte betez luzatzea.*

Jarraian, **irizpena** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

### 4.- Prórroga del contrato del servicio de limpieza viaria.

Se presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

*Aprobar la prórroga del contrato de limpieza viaria del municipio por un período de un año, firmado entre el Ayuntamiento de Astigarraga y Gureak Garbitasuna, S.L.U.*

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad.**



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

### 5.- Lorezaintza zerbitzuaren kontratua luzatzea.

Obra eta zerbitzuak batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*Herriko lorezaintza lanen zerbitzua emateko, Astigarragako Udalak Gureak Berdeak S.L.U. enpresarekin sinatuta duen kontratua urte betez luzatzea.*

Jarraian, **irizpena** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

### 5.- Prórroga del contrato del servicio de jardinería.

Se presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de obras y servicios:

*Aprobar la prórroga del contrato de mantenimiento de jardinería del municipio por un período de un año, firmado entre el Ayuntamiento de Astigarraga y Gureak Berdea S.L.U.*

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad.**

### 6.- Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua luzatzea.

Gizarte zerbitzuak, giza eskubideak eta enpleguko batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*Astigarragako herrian etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko kontratua urte betez luzatzea.*

Jarraian, **irizpena** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

### 6.- Prórroga del contrato del servicio de asistencia domiciliaria.

Se presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de servicios sociales, derechos humanos y empleo:

*Aprobar la prórroga del contrato del servicio de ayuda a domicilio en el municipio de Astigarraga por un período de un año.*

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad.**

### 7.- “Marisa Garaño” babespeko etxebizitzetan etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratuaren luzapena.

Gizarte zerbitzuak, giza eskubideak eta enpleguko batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*“Marisa Garaño” pisu tutelatuetan etxez etxeko zerbitzua emateko kontratua urte betez luzatzea.*

Jarraian, **irizpena** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

### 7.- Prórroga del contrato del servicio de asistencia domiciliaria de las viviendas tuteladas “Marisa Garaño”.

Se presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de servicios sociales, derechos humanos y empleo:

*Aprobar la prórroga del servicio de ayuda a domicilio en los pisos tutelados “Marisa Garaño” por un período de un año.*

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad.**



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

### **8.- “Marisa Garaño” babespeko etxebizitzetan katering zerbitzuaren kontratuaren luzapena.**

Gizarte zerbitzuak, giza eskubideak eta enpleguko batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*“Marisa Garaño” pisu tutelatuetan otordu zerbitzua emateko kontratua urte betez luzatzea.*

Jarraian, **irizpena** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

### **8.- Prórroga del contrato del servicio de catering de las viviendas tuteladas “Marisa Garaño”.**

Se presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de servicios sociales, derechos humanos y empleo:

*Aprobar la prórroga del servicio de comidas en los pisos tutelados “Marisa Garaño” por un período de un año.*

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad.**

### **9.- Hirugarren munduko laguntzen ebazpena.**

Gizarte zerbitzuak, giza eskubideak eta enpleguko batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

*Hirugarren mundurako dirulaguntzak emateko proposamena hurrengo elkarteei onartzea:*

- *HONEK: 10.040,09 € “Segovia irratia indartzea” egitasmoarentzat.*
- *BAAN MARINA: 18.000,00 € “Promoción y educación de los jóvenes de las tribus del norte de Tailandia” egitasmoarentzat.*
- *EUSKAL FONDOA: 10.793,12 € P264K egitasmoarentzat.*
- *BIKARTE: 2.000,00 € “Construcción vivienda adicional para menores en oncología clínica en Bielorrusia” egitasmoarentzat.*

Jarraian, **irizpena** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da.**

### **9.- Resolución de las ayudas al tercer mundo.**

Se presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de servicios sociales, derechos humanos y empleo:

*Aprobar la concesión de ayudas a países del tercer mundo a las siguientes organizaciones:*

- *HONEK: 10.040,09 € para el proyecto “Segovia Irratia indartzea”.*
- *BAAN MARINA: 18.000,00 € para el proyecto “Promoción y educación de los jóvenes de las tribus del norte de Tailandia”.*
- *EUSKAL FONDOA: 10.793,12 € para el proyecto P264K.*
- *BIKARTE: 2.000,00 para el proyecto “Construcción vivienda adicional para menores en oncología clínica en Bielorrusia”.*

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad.**

### **10.- Txirriskla txistulari taldearen hitzarmena.**

Kultura, euskara, hezkuntza eta gazteria batzordeko irizpen hau aurkeztu du, onartua izan dadin:

### **10.- Convenio con Txirriskla txistulari taldea.**

Se presenta – para su aprobación – el siguiente dictamen de la comisión de cultura, euskara, educación y juventud:



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

*Txirriskla txistulari taldearekin hitzarmena onartzea eta 2.360,00 euroko laguntza ematea 1 0700.481.01.334.00 kontu sailaren kargu.*

*Aprobar el convenio con Txirriskla txistulari taldea y conceder una ayuda de 2.360,00 euros con cargo a la partida 1 0700.481.01.334.00.*

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du irizpena martxokoa dela, eta kasu honetan ere atzerapen handiarekin ekarri dela gaia batzordera.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que el dictamen es de marzo, y que en este caso, el tema también se ha traído con retraso a la comisión.

Jarraian, **irizpena** bozkatzeari ekin zaio, eta **aho batez onartu da**.

A continuación se procede a votar el **dictamen**, el cual **se aprueba por unanimidad**.

### 11.- Informazio, galdera eta eskariak

#### a.- Hirigintza-lizentziarik gabeko obrak

Zorione zinegotziak Andoni zinegotziari komentatu dio badakiela eskaera bat aurkeztu duela Ergobia ibilbidean hirigintza-lizentziarik gabe egiten dauden obrak geldiarazteko. Azaldu dio promotorak ez duela baimenik obra aurrera eramateko baina bai udal-arkitektoaren aldeko txostena, eta legeak ezarritako prozedura jarraitu ez bada (hirigintza batzordeak aztertu eta tokiko batzordera bideratzea horrek onar dezan), izan dela egin berri den hirigintza batzorderako txosten-teknikoa prest ez zegoelako. Eta komentatu du udal-teknikariak galdetu diola prozedura ezin daitekeen arindu.

Udal-idazkariak azaldu du alkateak tokikoari emandako eskumena denez, hirigintza batzordetik pasa gabe onartu daitekeela, baina ezinbestekoa dela tokiko gobernu batzordeak onartzea, bestela zuzenbidean erabat deuzetsa (*nulo de pleno derecho*) izango litzatekeelako.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du promotorak badakiela hirigintza-lizentziarik gabe ezin dituela obrak hasi, eta ezta udal zergak ordaindu aurretik. Baina astebete bat daramatzatela obra egiten, inongo baimenik gabe.

Zorione zinegotziak erantzun dio hurrengo astean gaia bideratzeko beste tokiko gobernu batzorde bat egingo dela. Orduan, udal-

### 11.- Información, ruegos y preguntas

#### a.- Obras realizadas sin licencia municipal.

La concejal Zorione le comenta al concejal Andoni que ya sabe que ha presentado una solicitud para paralizar las obras que se están ejecutando sin licencia en Ergobia ibilbidea. Le explica que la promotora carece de licencia para ejecutar las obras, pero que tiene informe favorable del arquitecto municipal, y que si no se ha cumplido con el trámite legal (analizarlo la comisión de urbanismo y remitirlo a la junta de gobierno local), ha sido porque el informe no estaba terminado cuando se celebró la última comisión de urbanismo. Y comenta, que el técnico municipal le ha preguntado si no hay manera de agilizar el procedimiento.

La Secretaría municipal explica que al ser una competencia delegada por el alcalde, se podría prescindir de la comisión de urbanismo, pero que es indispensable que lo apruebe la junta de gobierno local, ya que de lo contrario, la autorización sería nula de pleno derecho.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala que la promotora ya sabía que no podía ejecutar las obras sin licencia municipal, y sin abonar las tasas. Pero que llevan una semana con las obras, sin que cuenten con ninguna autorización.

La concejal Zorione le contesta que la semana siguiente se celebrará otra comisión de gobierno para legalizar el tema. En ese



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

idazkariak hartu du hitza eta adierazi, ez zaiola normala iruditzen beti idazkaritza saila izan beharra beste departamenduen lanari egokitzen dena, eta logikoagoa izango litzatekeela tokiko gobernu batzordeen egutegi bat zehaztea eta horren berri langileei ematea, gainerako batzordeak horretara egokitu daitezten.

Zorione zinegotziak baimena emateko gaia batzordean premiaz sartzetik dagoen galdetu du. Udal-idazkariak argitu dio beti dagoela aukera (edozein bertaratuak eskatzen badu) premiaz gai bat gai-zerrendan sartzeko, baina horretarako bertaratuek sartu edo ez bozkatu eta onartu behar dutela.

Bertaratuei oraindik txosten-teknikorik pasa ez zaienez, ez da bozkatu gai-zerrendan premiaz sartzea.

### **b.- 2014ko gizarte arloko laguntza-oinarriei aurkeztutako auzi-errekurtsoa**

Zorione zinegotziak adierazi du gobernu ordezkariak 2014ko deialdiaren kontra jarritako auzi-errekurtsoaren epaia iritsi dela, eta bertan eskatu dela, besteak beste, onartutako laguntzak itzularazteko espedientea abian jartzea. Azaldu du laguntza horiek gizarte ekintzetarako 8 taldeei onartu zitzaiela (Atzegi, odol-emaileak, osasun pastorala, Caritas, Harituz, Ortzadar, Agifes eta Banco de Alimentos) eta ez zaiola logikoa iruditzen gizarte-laguntza horiek itzularaztea.

Gainerako bertaratuei ere ez dute logikotzat hartu laguntzak itzuli beharra.

Hori dela eta, udal-idazkariari gaia aztertzeko eskatu zaio.

### **c.- Bidegorriko obraren kontratu-aldaketa espedientea.**

Zorionek bertaratuei komentatu die Moyua enpresak ez duela auzo-errekurtsorik aurkeztuko, bidegorriko obra-kontratuaren aldaketa dela-eta izapidetu den espedientean.

momento, toma la palabra la Secretaría municipal y señala que no le parece normal que siempre sea secretaria la que se adecue al trabajo del resto de departamentos, y que lo lógico sería fijar un calendario para las juntas de gobierno local y dar a conocer el mismo a las trabajadoras y los trabajadores municipales, para que organicen el resto de comisiones.

La concejal Zorione pregunta si se puede incluir el tema por urgencia en el orden del día. La Secretaría municipal le aclara que siempre se puede incluir un tema por urgencia (pudiendo pedirlo cualquiera), pero que para eso los asistentes tiene que votar y aprobar su inclusión.

Como a los asistentes todavía no se les ha facilitado el informe técnico, no se vota su inclusión en el orden del día.

### **b.- Recurso contencioso-administrativo interpuesto a la convocatoria de ayudas sociales del 2014.**

La concejal Zorione informa de que ha llegado la sentencia del contencioso interpuesto por delegado de gobierno a la convocatoria del 2014, y que en la misma, entre otras, se solicita que se inicie un expediente para la devolución de las ayudas. Explica que las mismas se concedieron para actividades sociales a 8 asociaciones (Atzegi, odol-emaileak, osasun pastorala, Caritas, Harituz, Ortzadar, Agifes y Banco de Alimentos) y que no le parece lógico que se tengan que devolver las mismas.

Al resto de asistentes tampoco les parece lógico que se tengan que devolver las ayudas.

Por eso, piden a la secretaría municipal que analice el tema.

### **c.- Modificación del contrato de obras del bidegorri**

Zorione les comenta a los asistentes que la empresa Moyua no va a presentar recurso contencioso-administrativo al expediente que se ha tramitado para la modificación del



## Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria  
idazkaritza@astigarraga.eus

contrato de obras del bidegorri.

### **d.- Mundarro.**

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta galdetu; batetik, nola dagoen, kiroldegiko ustiapena dela-eta, Mundarrokekin dugun zerbitzu-kontratua aldatzeko espedientea; eta bestetik, urteko hitzarmenaren gaia nola dagoen. Zorione zinegotziak erantzun dio kirol batzordetik pasa behar dela, baina kirol teknikaria oporretan egon denez, ezin izan dela egin.

### **d.- Mundarro.**

Toma la palabra el concejal Andoni y pregunta, por un lado, como está el tema de la modificación del contrato con Mundarro para la gestión del polideportivo; y por otro, como está el tema del convenio anual. La concejal Zorione le responde que tiene que pasar por la comisión de deportes, pero que como el técnico municipal estaba de vacaciones, no se ha podido celebrar.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2016ko urriaren 11n.

**Kontxi Urdampilleta Santamaría**  
**Ordezko idazkaria**